

Euskal Herriko Bilgune Feministaren oharra:

Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zenetik 12 urte igaro dira. Urte hauetan zehar, 2002an definitu genuen plan estrategikoa ardatz izanik egin dugu bidea. Baina Euskal Herria aldatu da, feminismoak aldatu dira, patriarkatuak forma berriak hartu ditu. Eta honen aurrean, gu, eta ordezkatzeko dugun Euskal Feminismoak, gure helburua den Euskal Herriaren burujabetza feminista erdiesteko jarduna egokitzeke beharra sentitzen dugu.

Topaketen helburua: egungo egoeratik abiatuta, Euskal Herrian burujabetza feminista baterantzko ibilbidearen edota trantsizioaren oinarriak zehazteko eztabaida ematea. Oinarri hauek egoeraren gaineko diagnostiko erreala batetik abiatuko dira, jendarte eredu feminista baterako ibilbidea zehazteko.

Euskal Herriari ekarpena: ariketa hau, Euskal Herrian burujabetza feminista bat eraiki nahi duten pertsona guztiekin konpartitu nahi da, borroka feminista norabidetzeko ariketa gisa. Feminismotik Euskal Herriaren aldaketa etorriko dela sinisten dutenekin adostua izango da.

Nori zuzendua: subjektu nagusia Euskal Herri feminista eraiki nahi duten emakumeak dira. Baina bide honetan, zuzeneko bidelagunak emakume abertzale eta feministak lirateke, eremu anitzetan lanean dihardutenak eta haien jardura feminista eremu horietan garatzen jarraitu nahi dutenak.

Zergatik orain eztabaida hau?

Eguno testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoa egiturazko krisiak ezaugarritzen du. Kapitalismoaren, balioen, zaintzen krisia bizitzen ari gara Euskal Herrian zein mendebaldeko beste herrialdeetan ere. Troikaren gidaritzapean, Europako Batasuna eta Espainiako Gobernuaren erabakiz (Eusko Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak lagundurik) krisialditik ateratzeko neurri guztien oinarri gisa: austeritate neurriak ditugu. Abian jarritako neurri hauen bitartez, urteetan borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galdu ditugu, bizitza duin bat izatea gero eta zailagoa izanik. Hala, krisi ekonomikoak eta neoliberalismoaren nagusitasunak eragin zuzena dute emakumeengan: egiturazko neurri murriztaile guztiek, emakumeen etxeratzea eta familia heteropatriarkala indartzea baitute helburu. Honenbestez, egoerari aurre egiteko orduan ere, politika feminista garatzeko moduetan kasu, eragin zuzena du testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoak.

Euskal Herriari begiratuz gero, ziklo politiko berri baten aurrean aurkitzen gara. Urte luzez jardun den estrategia soberanistan, bake bidean, aldaketak eman dira bestelako herri eredu baterantz urrats berriak emateko asmoz. Beraz, egoera honetan, jendarte eredu alternatibo bat eraikitzeke dauden aukerak eta oztopo berriak identifikatzea beharrezkoa dela deritzogu.

Honez gain, feminismoen inguruko bilakaera teoriko esanguratsua eman da. Eztabaida bi gakoetan baita planteatu daiteke: batetik, jendartearen egiturazko aldaketa ekarriko duen estrategiaren zehaztapena. Bestetik, estrategia feministaren nolakotasuna errebisatzea eta norabide berria marraztea. Bilakaera teoriko eta aldaketen aurrean, Euskal Feminismoak, bere norabidea eta jarduna definitu izan du, subjektuen inguruko eztabaidan adibidez. Baina erronka berrien aurrean aurkitzen gara, hau da, lortu nahi ditugun helburuak erdiesteko nola, nondik, norekin... - ariko garen birdefinitzeari ekin nahi diogu. Estrategiaren nolakotasunaren inguruko eztabaida ugari daude feminismoetan, hauek Euskal Herriko testuingurura ekarri, eztabaidatu eta eguneratu nahi ditugu.

Beraz, testuinguru berriak eskaintzen dizkigun aldagai guztiak kontuaz hartuz, Plan Estrategiko honen azterketa, berritzea eta nolakotasuna eztabaidatzera goaz.

Gorde data zuen agendetan, datorren astean informazio gehiago eskainiko dizuegu!